

## MAILEBUZKO HITZEI BURUZKO JARDUNALDIETAKO KRONIKATXOA

*Donostia, 1983, Urtarrilak 28*

*Fr. Luis Villasante*

Uztaritzen bi egunetako bilerak izan ditugu (1983, Urtarrilak 7-8). Epea laburra, baina ongi baliatua izan dela uste dut. 25 bat lagun bildu ginen. Horietarik euskaltzain osoak 11 ziren; Iparraldetik 5, Hegoaldetik 6. Ez genuen izan aski denbora programa osoa aztertzeko. Horregatik beste txanda edoaldi bat egin beharko da, agian Bazko astean eta toki berean.


**Urtarrilak 7. Goizean.** Euskaltzainburuak egin zuen hasierako hitzaldia: "Mailebuzko hitzek sortzen dizkiguten istiluak". Arazo honen ikuspegi orokor bat eman zuen. Ondoren Krutwig jaunak bidalitako lana irakurri zen (munduan ezagutzen diren kultur enbor nagusiei buruz). Krutwig berak behinola Euskaltzaindiari aurkeztutako beste lan baten berri ere eman zen: "Sobre ortografia vasca y el vascuence escrito". Gero eztabaida luzea izan zen: ea kultur saileko mailebuetan aleman, ingeles eta frantsesak segitzen duten ortografia euskarak hartu behar ote duen. Badirudi gehienek ustea ezezkoaren alde agertu zela. Gehienek, alegia, uste zuten, bide horrek euskal ortografia gehiegi zaildu eta alferriko letrez zamatu egingo lukeela.

**Arratsaldean.** Haritschelhar jaunak izan zuen lehenengo txostena. R-kin hasten diren mailebuei protesi bat jartzen die euskarak (E, A edo I). Protesi hori gordetzearen alde agertu zuen bere eritzia. Eta berdin SP edo SC-kin hasten diren mailebuetan ere (izpiritu, ezpata, eskola). Hasierako gorrak ozendu behar diren ala ez: horretan euskarak ez du beti lege bat gorde. Oraingo hitzetan hobe ikusten zuen gorrak ozendu gabe uztea. Gero eztabaida luzea izan zen.

Ondoren Luis Mari Mujika eta Xabier Kintanak txosten bana irakurri zuten hitz bukaerei buruz. Hitz kultoen bukaerak bana-banaka aztertu ziren, hitzok euskara egokitze bideak erakutsiz. Puntu asko ukitu ziren: A organikoarena, O edo U bukaerarena, S-kin bukatzen diren hitzena, etab.

Gero gauean beste bilera bat egin zen, bildutako arteen akordio batera heltzen ginen puntuak jasotzeko.

**Urtarrilak 8. Goizean.** Xabier Kintanak txosten bat egin zuen X letraren arazoaz. Segituan Rosa Miren Pagolaren beste lan bat irakurri zen gai berberari buruz. Jakinaenez, euskara arruntean X letrak badu balio jakin bat; kultur munduko mailebuetan, berriz, letra honi beste balio bat ematen zaio. Zer egin? X letra mantendu ala aldatu behar ote da mailebu horietan? Eztabaida luzea izan zen, baina eritziak ez zetozen bat.



*Uztartitze, 1983-I/7-8-9. Ezkerretatik eskumatera: Resu Orbe andereñoa; Mikel Zal-bide; José M.<sup>a</sup> Satrustegi; Fr. Luis Villasante-Euskaltzainburua eta Jean Haritschelhar.*

Gero X. Kintanak beste txosten bat irakurri zuen: noiz G eta noiz J idatzi; eta Y, I, HI hitz hasieran datorrenean zer egin? Ikusten da erizpideak eman eta gero zerrenda egin beharra dagoela salbuespenekin.

*Arratsaldean.* Ibon Sarasola jaunak hitz egin zuen hiztegitik den aldetik berak dituen erizpideak azalduz. Ondoren eztabaida bizia izan zen.

\* \* \*

*Azken bilera.* Azken bilera honetan lehen eguneko gauean eztabaidatzen hasitako agerpen edo akordioa osatu, bukatu eta onartu zen. Ez da Euskaltzaindiaren erabakia, noski, Bilkuretara partaide izan direnen aburua agertzen da agerpen honetan. Eta bestetarako ez bada, Jardunaldi hauei segida ematen zaienean, gauza berak errepikatzen ibil ez gaitzen balioko duela, uste dugu.